INFORMAZIO OHARRA

# Zelan eraldatu kulturaren bitartez?

*Eusko Ikaskuntzak eta Iruñeko Udalak, Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin Euskarabidea-ren bidez, jardunaldi ireki bat antolatu dute datorren asteazkenerako, irailaren 20rako, Kultur Eskubideak bermatzeko eta gauzatzeko proposamenak egiteko.*

**Iruñea, 2023ko irailak 7**. "Kultur kudeaketa eraldaketarako: urrats berrien bila kultur eskubideen marko batetik abiatuta" izenburupean, Kondestablearen jauregian egingo da jardunaldia, datorren irailaren 20an, goizeko saioan. Topaketak hiru zati izango ditu.

Lehen zatia kulturaren eraldatze-funtzioari buruzkoa izango da eta Beñat Gaztelurrutiak gure lurraldeetako kultura-eskubideei buruzko txosten bat aurkeztuko du, Eusko Ikaskuntzak kultura-eskubideei eta partaidetza- eta gobernantza-politikei buruzko lan-programaren esparruan egina. Ondoren, Iratxe Retolazak dinamizatutako mahai-inguru baten bueltan, hainbat lurraldetako kultura-arloko adituek kultura eraldatzailea zer den eztabaidatuko dute: Marcos García, kultur kudeatzailea herritarrentzako laborategien eremuan; Leire San Martín Goikoetxea, arte garaikideko hezitzaile eta programatzailea; eta Nieves Beloki, KUNA- Nafarroako Kultur Kudeaketako Profesionalen Elkartearen ordezkaria.

Hirugarren zatian, kultura-eskubideak bermatzeko proposamen zehatzak aztertuko dira. Maialen Akizuk lan-taldearen esparruan prestatutako protokoloa aurkeztuko du. Protokolo hori kultur teknikarien eskura jarriko da, eta kultur ekitaldi bat antolatzeko orduan sortzaileen eskubideak bermatzeko kode etiko gisa balio nahi du.

Azkenik, talde-dinamika baten bidez, parte-hartzaileekin lan egingo da kultura-antolakuntzan jardunbide egokiak bermatzeko.

Interesa duen pertsona orok izena eman dezake dohainik www.eusko-ikaskuntza.eus web orrian.

Informazio gehiago / Más información
komunikazioa@eusko-ikaskuntza.eus
+34 618.18.49.49 (Leire Gaceo)

NOTA INFORMATIVA

# ¿Cómo transformar desde la cultura?

*Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos y el Ayuntamiento de Pamplona, con el apoyo del Gobierno de Navarra a través de Euskarabidea, convocan para el próximo miércoles 20 de septiembre una jornada abierta orientada a la elaboración de propuestas para garantizar y hacer efectivos los Derechos Culturales.*

**Pamplona, 7 de septiembre de 2023.** Bajo el título de "Gestión cultural para la transformación: en busca de nuevos pasos desde un marco de derechos culturales" el Palacio del Condestable acogerá esta jornada el próximo 20 de septiembre, en sesión matutina. Dicho encuentro se estructura en tres partes.

En la primera, dedicada a la función transformadora de la cultura, Beñat Gaztelurrutia presentará un informe sobre Derechos culturales en nuestros territorios, elaborado en el marco del programa de trabajo de Eusko Ikaskuntza sobre *Derechos culturales: políticas de participación y gobernanza*. A continuación, en torno a una mesa redonda dinamizada por Iratxe Retolaza, personas expertas del ámbito de la cultura de diferentes territorios debatirán sobre qué es la cultura transformadora: Marcos García, gestor cultural en el ámbito de los laboratorios ciudadanos; Leire San Martín Goikoetxea, educadora y programadora en arte contemporáneo; y Nieves Beloki, representante de KUNA-Asociación de Profesionales de la Gestión Cultural de Navarra.

En la tercera parte se explorarán propuestas concretas para garantizar los derechos culturales. Maialen Akizu presentará el protocolo elaborado en el marco del grupo de trabajo. Dicho protocolo, que será puesto a disposición del personal técnico de cultura, busca servir a modo de código ético para garantizar los derechos de las personas creadoras a la hora de organizar un evento cultural.

Para finalizar, a través de una dinámica de grupo se trabajará con las y los asistentes sobre los modos de garantizar buenas prácticas en la organización cultural.

Toda persona interesada puede inscribirse gratuitamente en la web www.eusko-ikaskuntza.eus.

Informazio gehiago / Más información
komunikazioa@eusko-ikaskuntza.eus
+34 618.18.49.49 (Leire Gaceo)